

## IKASLEAREN EGITEKOA: 2. MAILA

### Ahozko azterketa

#### Epaimahaikoen aurrean egin beharreko ariketak

- 1. ZATIA. Aztertzaileen galderak
- 2. ZATIA. Gaia garatu
- 3. ZATIA. Bat-bateko elkarrizketa

(minutu 1/1,  
ikasleko)

(3:30/3:30,  
ikasleko)

(2:30/2:30,  
ikasleko)

**Guztira 15 bat  
minutu  
(bikoteko)**

#### Gaia prestatzeko denbora:

**10 minutu** inguru dituzu gaia prestatzeko.

Amaizten duzunean, itxaron aztertzaileek deitu arte.

#### Prestatu behar duzun gaia:

## 18. gaia: GURE NAGUSIAK



#### Egitekoa

Batzuen ustez, gure gizarteak ez daki zer egin nagusiekin. Nola zaindu gure nagusiak?

#### Zehatzago

Zelan daude hobeto, euren etxean, seme-alabenean, zahar-etxe batean? Zer gertatuko da etorkizunean? Nagusiak zaintzeko aukera hobeak izango dira? Arrazoiak eman.

*Gogoratu 2 minutu inguru duzula hitz egiteko.*

*Amaieran, aztertzaileak beste azterketariari galderaren bat egingo dio zure gaiaz, eta hark bere azalpena bukatzen duenean, zuri egingo dizu.*

**EZ IDATZI EZER ORRI HONETAN**



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

## 2. MAILA

### 2. ZATIA

#### BAT-BATEKO ELKARRIZKETA

Materiala eman (Argazkien orria).

- Ikasleei bere fitxak eman eta zer egin behar duten azaldu (elkarri begira egongo dira eta irakaslea pixka bat atzerago jarriko da).
- Fitxak aurrean dituztela, minutu erdi bat utzi pixka bat pentsatzeko.

Ikasleen jardunaren bitartean.

- Ikasleei egiten utzi, baina hizketan pasatzen duten denbora neurtu.
- Beharrezkoa bada, esku hartu, moztu, txanda aldatu... (ikus. liburuxka berdean, 3. or.).
- Horretarako beheko galdera osagarriak balia ditzakezu.


#### 18. ARGAZKIA:

## Zer egin gure nagusiekin?

Fitxan pertsona nagusi batzuk agertzen dira. Zein iruditzen zaizu modurik onena bizitzaren etapa hau igarotzeko? Zahar-etxean, haien etxean, seme-alabekin?

#### GALDERA OSAGARRIAK

- Zuzen ikusten duzu aitona-amonek etxeko umeak zaintzea?
- Zure kasuan zahar-etxe batera joango zinateke?
- Bidaiak, elkarrekin... Lehen baino aukera gehiago dago?
- Zer falta da? Zer jarriko zenuke?



## Zer egin gure nagusiekin?

